Arregi trikuharrian monumentu mota hauen ezaugarriak ikus daitezke. Harripileta batek arlauzez eginiko ganbara inguratzen du. Trikuharriak orain dela 5.000 urte inguru eraiki ziren eta bertan ehorzketa egiten zen.

Berako megalitoak

Artikulu honen bidez Berako ondare megalitikoa ezagutzera eman nahi dugu. Gure arbasoek duela milaka urte eraikitako monumentu hauek Berako eraikuntzarik zaharrenak dira dudarik gabe eta horregatik gure errespetoa eta babesa beharko dute.

Zer dira megalitoak?

Orain dela 7.000 mila urte inguru, nekazaritza eta abeltzaintzaren hedapenarekin batera, kultura megalitikoa sortu zen Europako zonalde askotan, Euskal Herria barne. Kultura honen ezaugarri nagusiena, harrizko ehortze-monumentuen eraikuntza da. Monumentu hauek mota ezberdinetakoak dira eta modu laburrean esanda hauek dira Berako mendietan aurki daitezkenak: *Trikuharria*, arlauzez osatutako ganbara bat eta harri pilaketa batez estalirik; *Tumulua*, harriz eta lurrezko meta; *Harrespila* edo *Mairubaratza*, harriz eraikitako zirkulua; *Zutarria*, zutik ezarritako harritzarra.



Irastre trikuharriaren ganbara. Aunitzetan megalitoak egoera penagarrian mantendu dira, jendearen ezjakintasunak suntsiturik edota altxor-bilatzaileek hondatuta.

Boreiko Arri harrespila eta Larrun mendia.
Harrizko zirkulu hauek orain dela 3.000 urte eraiki ziren, Burdin Aroan, baina bertan ehorzketa ordez errausketa egiten zen.

Boreiko Arri harrespilean seinalea paratuta.

Berako megalitoen aurkikuntza

Berako megalito baten lehenengo aipamena Jose Miguel Barandiarani zor diogu, 1952an Mandale mendian harrespil multzoa aurkitu zuenean. Geroztik eta 2004ra arte, Beran 9 megalito aurkitu ziren: Mandale, Boreiko Arri, Meatzu Ekialde eta Meatzu mendebaldeko harrespil multzoak, Boreiko Arri 2, Ardizoko Armasa eta Alkozpeko lepoko harrespilak, Maleteko zutarria eta Larrakaitza trikuharria.

Beran oraindik eremu zabalak arakatu gabe geratzen zirelako ustearekin eta megalito gehiago aurkitzeko itxaropenaz, 2004 eta 2005ean Larrun mendiko hegoaldeko mazelen prospekzioari ekin genion.

Gure poza eta harridurako, beste 11 megalito aurkitu genituen: Aritzmendi, Irastre, Arregi, Txarrantxarri 1, Txarrantxarri 2, Urrizti eta Larraina trikuharriak, Lizarnabarra tumulua, Boreiko Arri 3 harrespila eta Mugerriko Gañako bi harrespilak.

Aurkikuntza hauekin Berako megalitoen kopurua 20ra iritsi zen eta agerian geratu zen Larrun mendiak zuen garrantzia orain dela 5.000 urteko artzaientzako.

Megalitoak babesteko seinaleak

Megalitoak desagertzeko arrisku bizian daude, aunitz hondatu baitira mendietan egiten diren lanengatik. Horregatik beharrezkoa da aurrehistoriatik jasotako lekuko hauek zaintzea.

Monumentu bakoitzaren datu guztiak katalogatu ondoren, 2008an Berako megalito guztietan seinaleak paratzen hasi ginen, monumentuaren izena eta mota adierazten duten altzairuzko xaflen bidez, zedarri batean jarrita. Horrela, gaur egun ezagutzen diren Berako megalito guztiak dagoeneko seinaleztaturik daude.

Seinale hauen bidez monumentuak zainduago egongo dira eta ibiltariari informazioa ematen diote.

Mendetan zehar mantendu diren monumentu hauek ezagutzera eta zaintzera animatzen zaituztegu, gure arbasoen oroitgarriak betirako gal ez daitezen.

Iñigo Txintxurreta
igtxintxurreta@euskalnet.net